


Heriotzen kopurua % 9,4 jaitsi da 2023ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEn

COVID-19ak eragindako 84 heriotzak heriotza guztien % 1,6 izan dira

Eustaten datuen arabera, 2023ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEko heriotzen kopurua 5.245era iritsi da, eta, beraz, aurreko urteko aldi berean baino % 9,4 gutxiago izan dira. Datuak aurreko urtekoekin alderatuta ikus daitekeenez, 2023ko bigarren hiruhilekoan heriotzen kopurua 2022. urtekoa (5.787), 2021ekoa (5.418) eta 2020koa (6.073) baino txikiagoa izan da, baina 2019koa (5.067) eta 2010-2019 aldiko batez bestekoa (4.876) baino handiagoa.

COVID-19ak 84 heriotza eragin ditu guztira, hau da, 2022ko hiruhileko berean baino 277 gutxiago.

Euskal AEko egoiliarren heriotzak, hilabeteka



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Heriotzen kopuruak hiru lurraldeetan egin du behera, eta beherakada hori bereziki esanguratsua izan da Araban eta Bizkaian. Araban, heriotzak % 13,4 gutxiago izan dira (686 heriotza), eta Bizkaian, berriz, % 12,5 gutxiago (2.763 heriotza). Gipuzkoan, beherakada txikiagoa izan da (% 2,3koa), eta 1.796 heriotza izan dira guztira. Sexua kontuan hartuta, 2.643 emakume eta 2.602 gizon hil dira. Hortaz, emakumeen kasuan heriotzen kopurua % 9,8 jaitsi da, eta gizonen kasuan, berriz, % 9.

Bigarren hiruhilekoan izandako heriotzen artean, 7 urtebetetik beherako umeenak izan dira (% 0,1), eta 98 ehun urtetik gorako pertsonenak (% 1,9).

Euskal AEko heriotzak heriotza-arrazoiaren eta sexuaren arabera (1). 2023/II

	2023/II		2023/I			2022/II		
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza (%)	KOP	%	Gehikuntza (%)
HERIOTZAK	5.245	100,0	6.216	100,0	-15,6	5.787	100,0	-9,4
Heriotza-kausak								
Guztira								
Neoplasiak	1.472	28	1.622	26	-9	1.559	27	-5,6
Zirkulazio sistema	1.338	25,5	1.627	26,2	-17,8	1.438	24,8	-7,0
Arnas sistema	341	6,5	545	8,8	-37,4	344	5,9	-0,9
Nerbio sistema	324	6,2	405	6,5	-20,0	358	6,2	-9,5
Txegoste sistema	263	5,0	305	4,9	-13,8	287	5,0	-8,4
Gainerako kausak	1.507	28,7	1.712	27,5	-12,0	1.801	31,1	-16,3
COVID-19 baieztatuta	84	1,6	74	1,2	13,5	361	6,2	-76,7
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	1	0,0	-100,0
Bestelakoak	1.423	27,1	1.638	26,4	-13,1	1.439	24,9	-1,1
Gizonak								
Neoplasiak	860	33	983	32	-13	923	32	-6,8
Zirkulazio sistema	624	24,0	752	24,7	-17,0	672	23,5	-7,1
Arnas sistema	180	6,9	280	9,2	-35,7	178	6,2	1,1
Nerbio sistema	144	5,5	159	5,2	-9,4	145	5,1	-0,7
Txegoste sistema	132	5,1	161	5,3	-18,0	159	5,6	-17,0
Gainerako kausak	662	25,4	709	23,3	-6,6	781	27,3	-15,2
COVID-19 baieztatuta	37	1,4	36	1,2	2,8	189	6,6	-80,4
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	1	0,0	-100,0
Bestelakoak	625	24,0	673	22,1	-7,1	591	20,7	5,8
Emakumeak								
Neoplasiak	612	23	639	20	-4	636	22	-3,8
Zirkulazio sistema	714	27,0	875	27,6	-18,4	766	26,2	-6,8
Arnas sistema	161	6,1	265	8,4	-39,2	166	5,7	-3,0
Nerbio sistema	180	6,8	246	7,8	-26,8	213	7,3	-15,5
Txegoste sistema	131	5,0	144	4,5	-9,0	128	4,4	2,3
Gainerako kausak	845	32,0	1.003	31,6	-15,8	1.020	34,8	-17,2
COVID-19 baieztatuta	47	1,8	38	1,2	23,7	172	5,9	-72,7
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
Bestelakoak	798	30,2	965	30,4	-17,3	848	29,0	-5,9
(1) Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira								

Data 2023ko Azaroaren 20a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Heriotza-kausa nagusiak tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan dira (1.472 eta 1.338 heriotza eragin dituzte, hurrenez hurren). Bi kausa horiek heriotza guztien % 53,6 eragin dituzte. Hirugarren heriotza-kausa arnas sistemako gaixotasunak izan dira, eta 341 heriotza eragin dituzte. COVID-19ak 84 heriotza eragin ditu (% 1,6).

Heriotzen arrazoia, berriz ere, desberdina izan da sexuaren arabera. Gizonen kasuan, tumoreek eragindako heriotzak zirkulazio-sistemako gaixotasunek eragindakoak baino gehiago izan dira, eta emakumeen kasuan, kausa nagusia zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan dira, eta bigarrena, berriz, tumoreak.

Euskal AEko heriotzak heriotza-arrazoiaren eta sexuaren arabera (1). 2023/II

	2023/II		2023/I		2022/II	
	KOP	%	KOP	%	KOP	%
HERIOTZAK	5.245	100,0	6.216	100,0	-15,6	5.787
Heriotza-kausa						
Guztira						
Neoplasiak	1.472	28	1.622	26	-9	1.559
Zirkulazio sistema	1.338	25,5	1.627	26,2	-17,8	1.438
Arnas sistema	341	6,5	545	8,8	-37,4	344
Nerbio sistema	324	6,2	405	6,5	-20,0	358
Txegoste sistema	263	5,0	305	4,9	-13,8	287
Gainerako kausak	1.507	28,7	1.712	27,5	-12,0	1.801
COVID-19 baieztatuta	84	1,6	74	1,2	13,5	361
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	1
Bestelakoak	1.423	27,1	1.638	26,4	-13,1	1.439
Gizonak						
Neoplasiak	860	33	983	32	-13	923
Zirkulazio sistema	624	24,0	752	24,7	-17,0	672
Arnas sistema	180	6,9	280	9,2	-35,7	178
Nerbio sistema	144	5,5	159	5,2	-9,4	145
Txegoste sistema	132	5,1	161	5,3	-18,0	159
Gainerako kausak	662	25,4	709	23,3	-6,6	781
COVID-19 baieztatuta	37	1,4	36	1,2	2,8	189
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	1
Bestelakoak	625	24,0	673	22,1	-7,1	591
Emakumeak						
Neoplasiak	612	23	639	20	-4	636
Zirkulazio sistema	714	27,0	875	27,6	-18,4	766
Arnas sistema	161	6,1	265	8,4	-39,2	166
Nerbio sistema	180	6,8	246	7,8	-26,8	213
Txegoste sistema	131	5,0	144	4,5	-9,0	128
Gainerako kausak	845	32,0	1.003	31,6	-15,8	1.020
COVID-19 baieztatuta	47	1,8	38	1,2	23,7	172
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0
Bestelakoak	798	30,2	965	30,4	-17,3	848
(1) Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira						

Data 2023ko Azaroaren 20a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Euskal AEko hazkunde begetatiboa negatiboa izan da 2023ko bigarren hiruhilekoan (2.040 pertsona gutxiago). Biztanle kopuruak hiru lurraldeetan egin du behera: Bizkaian 1.186 pertsona gutxiago izan dira, Gipuzkoan 719 eta Araban 135.

COVID-19ak 84 heriotza eragin ditu 2023ko bigarren hiruhilekoan

COVID-19ak 84 heriotza eragin ditu guztira, hau da, 2022ko hiruhileko berean baino 277 gutxiago. Heriotza horiek guztiak egiaztatutako COVID-19ak eragin ditu. Horiez gain, beste 13 heriotzatan COVID-19a ziurtatutako heriotza-kausetako bat izan da, baina ez da funtsezko kausa izan.

Defunciones de la C.A. de Euskadi por territorio histórico, municipio (>40.000 habitantes) de residencia, sexo y edad según tipología de causas de defunción relacionadas con el COVID. II/2023

	Total defunciones	Total COVID-19	COVID-19 confirmado	COVID-19 probable
C.A. de Euskadi	5.245	84	84	0
Territorios Históricos de residencia				
Araba/Álava	686	11	11	0
Bizkaia	2.763	48	48	0
Gipuzkoa	1.796	25	25	0
Municipio de residencia (>40.000 habitantes)				
Barakaldo	246	4	4	0
Basauri	124	4	4	0
Bilbao	876	14	14	0
Donostia / San Sebastián	492	10	10	0
Getxo	205	3	3	0
Irun	152	0	0	0
Portugalete	131	3	3	0
Santurtzi	140	2	2	0
Vitoria-Gasteiz	506	4	4	0
Sexo				
Hombre	2.602	37	37	0
Mujer	2.643	47	47	0
Edad				
Menores de 40 años	47	0	0	0
De 40 a 59 años	324	1	1	0
De 60 a 79 años	1.519	17	17	0
80 o más años	3.355	66	66	0


Fuente: Eustat. Estadística de defunciones.

Lurraldeei dagokienez, kopururik handiena Bizkaikoa izan da (48 heriotza), eta, haren atzetik, Gipuzkoa (25) eta Araba (11) kokatu dira. Hiriburuen kasuan, COVID-19ak 14 heriotza eragin ditu Bilbon, 10 Donostian eta 4 Gasteizen. Beste udalerri aipagarri batzuk Barakaldo eta Basauri izan dira (COVID-19ak 4 heriotza eragin ditu udalerri horietako bakoitzean).

Emakumeen heriotzen kopurua gizonen heriotzena baino handiagoa izan da (47 eta 37, hurrenez hurren). Adina kontuan hartuta, COVID-19ak eragindako heriotzen % 78,6 (66 heriotza) 80 urtetik gorako pertsonen taldean gertatu dira.

Heriotza horietako gehienak (% 85,6) Euskal AEko ospitaleetan gertatu dira (2022ko bigarren hiruhilekoan % 79 izan ziren). Gainerako heriotzak egoitza soziosanitarioetan (% 10,7; % 11,6 2022ko bigarren hiruhilekoan) eta bizilekuetan (% 3,5; % 9,4 2022ko bigarren hiruhilekoan) gertatu dira.

Bizilekua Euskal AEn zutenen heriotzak. Hileko datuak



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62